

Paisaia eta bizidunak

Hondarribia, 11. zk., 1987-03: 5.

Hondarribiko paisaia, ingurua, txol ederra da.

Begira itsasaldera, Jaizkibeleko teilatu-itxurako gailur luzera, parte zaharraren auxazolu eta etxe-kantoieta harri xuxenetatik gora ikusi teilapeko zur landu ederrak; urbazterretik bazoaz, berriz, untziak kolore bizitan kulunkan isladatzen dira zuretzat.

Alderdi guztietatik ikusten dugunak atsegin eta ederrez asetzen gaitu.

Baina pasaia honek berezko geldia du lege.

Paisaia hutsak berez erakusten digun ez da, halere, gaur nik adierazi nahi dudana. Izenburuan, bizidunak, jarri dut. Bada gure herrian harrigarria den zerbait: animaliek gure artean duten lekua. Hara, zeuk etxetik goizean irteterakoan egunero aurkitzen duzun txakurra; muturreko eta hanketako marroitik kanpora, dena beltza da, eserita dago, gosalduta eta kalera irten berrian erakusten duen desafio planta horrekin. Hala dirudi. Baina ez da hala, kale baztar baten babesean, abandonatua, ikusi baitzenuen atzo gabean. Nortasun agerian duen zakur serio bat da, baina zurtza da. Eta, eguna joan, eguna etorri, animalia hau zure herriko paisaian sartu zaizu. Bada beste txakurrik ere, sobera! Batzu politikak eta dotore jantziak ere; haundi ikaragarriak direnak ere bai, katez lotuta erabili beharrean inor izutzeko kaleratuak diruditen horiek ere gure paisaian sartu dira.

Katuak ere hor daude gure ikusmirarako espigoinaren sarreran, eta norbaitek tokiz aldatu edo ezkutaraziko balitu ez litzateke espigoina gaur den zirkoa izango; joan den elur-hotz-goiz batean, hamar-hamabi katu adarretara igoak ikusi nituen negu beltzean emandako fruituak balira bezala.

Baina bada animaliaz kanpo, gizakia ere, noski.

Paisaia eder honetan pertsonak gabiltz, hara eta honera, gehienetan alperrikakoa ez dena egiten; senar-emazteak haurtxo edo bilobekin espigoinera badoaz, ez dira etxetik delako baizik, edo ibiltzea bera atsegin zaielako; norbait patxadan eguzkia hartzera Butroingo pasealekura irten bada, eguzkia neguan gauza ederra delako da; hiruzpalaur gizon urdin, zangoak zabal eta besoak gurutzatuta, itsasora begira euren artean hizketan ari badira, ez da itsasgizona berez berritsua delako, elkarren arteko duten komunikazio behar hori betetzeko modu eder bat delako da.

Honekin esan nahi dut, lotu eta askatu, askatu eta lotu, herrian zehar dabilzatenak ez direla berez Hondarribiak duen kaleko paisaia mugikor hau alperrik egiten.

Helduak eta haurrak egunez, parejak gaeuz, paisaia bizia osatzen dute.

Bada honez beste, oso ukigarri gertatzen zaiguna: adineko pertsonak dira negupartean faltan botatzen hasten garenak: halako hor egoten zen beti, eta joan da; pauso zail-ukikor hartan emazteamonaren besotik ibiltzen zen aitona ez dugu gehiago hemen ikusiko.

Askotan gazteak ere joaten dira, bapatean!, zoritxarrez; halere, edur-ipar-izotz hauekin gure herriko paisaiatik betiko ezkutatu diren hauek ditut orain gogoan. Bai baitakit lehen paisaiak berezko geldia duen legez, gizakiok geurez ari garela, eta jakinean, herriko paisaia aldatzen; eta minez, batez ere dihoaztenak ezagunak ditugunean.

Paisaia aldakor bat besterik ez baigara.